

ERABILERA GOMENDIOAK

Urtero bezala, Irudika-k hainbat jarraibide argitaratu ditu gure profesionalek errazago eskura ditzaten gure edukiak, emaitza hobekien lortzeko erabileraren eta jardunbide egokiak garatzeko networking lanean. Gure iradokizunekin onlineko plataformaren eremu desberdinak aztertuko ditugu giro birtual onaren lortzeko eta egileei nahiz agenteei laguntzeko euren komunikazio prozesuetan, barne-harremanetan eta hitzordu profesionaletan.

HITZORDU PROFESIONAL BAT ESKATU AURRETIK

Aztertu aukera guztiak eta aukeratu zure lanarekin zerikusia dutenak. Gurea ez bezalako ildo editoriala edo estailoa duten bezela, editorial edo agenteei mezuak bidaltzeak askotan adierazten du ez dela egon ikerketa edo interes handirik gure aldetik. Eta horrela jokatzeko modu desegokia izan daiteke geure burua inori aurkezteko. Ahal dela, ez bidali mezu orokorrik, eta kasuan kasuko proiektuari buruzko mezu zehatzak bidali komunikazioa hasteko.

Ezer eskatu baino lehen gauzak ondo ikertzea errespetu seinale bat da. Gauza bera gomendatzen diegu gure ilustratzaile profesionalekin solastatu behar direnei: ez da beti ona izaten jende esperientziaduna aukeratzea; batzuetan interesgarria da galderak egin nahi duen jendearekin solastatzea, 15 minutu horietan lanpostu bat bilatu baino gehiago gauzak ikasi nahi dutenekin harremanak ahaliztea.

INTRANET BIDEZ KOMUNIKATZERAKOAN

Baliabidea ondo erabiltzen da helburu zehatz batekin idazten denean. Erabilera zuzena da spam-ik ez egitea, doctore jokatzeko, jakin-mina sortzea, gauza interesgarriez mintzatzea eta enbarazurik ez egitea plataforma hori modu arduratsuan erabiltzen duten beste pertsona batzuei. Era berean, espero dugu feedback guztiak kritika eraikitzailean oinarrituta egotea, komunitate honen helburua baita zubiak eraikitzea eta elkarri hobetzen laguntzea.

Norbaitek erantzuten ez badizue, ez mindu. Bizitzan ate asko ixten dira, baina baliteke gero beste batzuk zabaltzea ustekabearekin. Garrantzitsuena da saiatzea eta arrasto interesgarri bat uztea.

Gure asmoa da komunitatearen barruan ikus ditzazuela beste kide batzuen lanak eta sor ditzazuela nazioarteko harreman berriak. Interesa har dezazuela Irudika-n partaidea izango dituzuen lagun hiri urrunetako azoka eta espazioekin. Miretsi eta errespetatu ditzazuela hurbil dituzuenak, elkar lagundu dezazuela parte-hartzaile guztiok, gure ekitaldia ez dadila izan emaitza azkarrak lortzeko bitarteko soil bat bakarrik, baizik eta geure burua elikatzeko espazio bat, ondoren pausatu, hausnartu eta profesionaltasun gehiagorekin lanean jarraitzeko.

Zeure galeriaren barruan, aukeratu zure lana ongi irudikatzen duten bost obra; batzuetan komeni da erakustea lantzen dituzun esparru guztiak eta erabil ditzakezun teknikak, baina beste batzuetan hobe da biografian azaltzea zure interesak eta landu ohi dituzun lan eremuak, eta gero zati grafikoa erabiltzea zeure estailo erakusteko (kolore-paleta, irudi batean konposizioa erabiltzeko modua...). Irudiak koherenteak badira elkarren artean, argiago erakutsiko duzu zure begirada, irudi guztiak hari batek josiko baititu, proiektu desberdinetakoak izan arren.

Gure aholku garrantzitsuena da har dezazuela behar den denbora guztia hitzaldien eta prestakuntzen edukiaz albait arinen gozatzeko, elkar ezagututa sor daitezkeen barne-harremanak. Zenbat eta gehiago jakin Irudika espazio birtual honetan zuekin batera egongo diren parte-hartzaileei buruz, hainbat errazago gertatuko zaizue elkarren arteko konexioak azaleratzea eta etorkizuneko aliantzak ernaltzea. Gozatu plataforma honetaz, maitasun handiz sortu dugulako eta ahalegina egin dugulako urtero Artium Museoa lortzen dugun giro atsegina birsortzeko. Zatoztenean, ekarri zuen maleta hutsik eta bete hemen ezagutzaz, elkerketez eta esperientziez.

Zain gauzazue bidaia zuekin partekatuzko.

